



BERGARAKO UDALAREN UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA ERATZEKO ETA JARDUTEKO ARAUDIA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2006/12/18an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2007/03/28an

Aldaketak:

1. aldaketa:

2.1. artikulua, 4. artikulua

Onartuta: Udalbatzak 2007/10/29an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008/01/02an

AURKIBIDEA:

ZIOEN AZALPENA.....	2
I. TITULUA.- UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK	2
II. TITULUA.- ANTOLAMOLDEA.....	3
I. Kapituluak: batzordearen antolaketa.....	3
II. Kapituluak: lehendakaritza eta lehendakariordetza.	4
III. Kapituluak.- Osoko Bilkura.	4
IV. Kapituluak.- Idazkaritza.....	5
III. TITULUA. UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEKO KIDEEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.	5
I. Kapituluak.- Batzordeko kideen eskubideak.	5
II. Kapituluak.- Batzordekideen betebeharrak.	6
IV. TITULUA.- JARDUTEKO ARAUBIDEA.	6
I. Kapituluak.- Osoko Bilkura.	6
II. Kapituluak.- Botazioak.....	7
AZKEN XEDAPENAK.....	7
Lehenengoa.....	7

BERGARAKO UDALAREN UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA ERATZEKO ETA JARDUTEKO ARAUDIA

ZIOEN AZALPENA.

Ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, bere helburuen artean ondoko hau du: herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzea, egitura-antolamendurako planetan nahitaezkoak diren herritarrek parte hartzeko programen bidez eta udalerrri batzuetan nahitaezkoak diren Plangintzako Aholku Batzordearen bidez. Horrez gainera, hirigintzaren inguruko informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatu nahi da, lurraldeko eta arloko antolaketaarako tresnekiko udal hirigintza plangintzaren osotasuna eta koherentzia segurtatuz.

Legearen 108. artikulua ezartzen duenez, egitura-antolamendurako plangintzako edozein figura egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udalak hartzen duen erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa horrek, udalerrriaren ezaugarrietan oinarrituta, herritarrek eta elkarteek plana taxutzeko lanetan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- a) Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitze erabaki estrategikoak eta espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.
- b) Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egin ahal izango da, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian finkatutako prozeduren arabera.
- c) Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako lege eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, jendeak agiri horiek errazago ezagutu eta ulertu ditzen.

I. TITULUA.- UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK

1. artikulua.– Udal Plangintzako Aholku Batzordearen eginkizunak.

1.– Bergarako Udal Plangintzako Aholku Batzordea aholkurako eta eztabaidarako organo bat da, udal mailakoa, eta Bergarako hirigintza planak egin, izapidetu eta onartzeko prozeduraren gainean adostasun soziala lortzeko balioko du.

2.– Udal plangintza orokorraz arduratzen diren administrazioek egindako azterlan, egitarau, jarraibide eta jardunbideez arduratuko da batzordea, plangintza egiten laguntzeko, eta horien guztien berri emango du, beti plan orokorraren idazketa teknikoa hasi eta gero.

3.– Batzordearen lana aintzat hartzen dituen gaiak aztertze agiriak egitea izango da. Agiritan proposamenak edo aukerak aurkeztu ahal izango ditu, baina horiek ez dira izango lotesleak herri-administrazioentzat.

4.– Batzordeak Plangintza onartu behar duen administrazioari aurkeztu eta plangintza behin betiko onartzeko ebazpenean aintzat hartu ez diren proposamen eta alternatibei dagokienez, erantzun egin beharko dira eta erantzunean adierazi beharko da zergatik ez diren onartu.

2. artikulua.– Udal Plangintzako Aholku Batzordearen osaera.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen onarpenak aldaketa garrantzitsuak eragin ditu bai kontzeptuetan bai funtsean, eta, horren ondorioz, nahitaez eratu beharra dagoen Udal Plangintzako Aholku Batzordearen araudia onartu behar da orain Plan Orokorra deitzen dena tramitatu ahal izateko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, 109 eta 110. artikuluetan ezartzen duenaren arabera.

1.- Ondoko hauek izango dira Batzordeko kide:

- a) Udalerriko Alkatea, Batzordeko burua izango dena.
- b) Ingurugiro alorreko zinegotzia.
- c) Bergarako Udaleko Hirigintza eta Obretako batzordeko kideak, Udaleko alderdi guztiak ordezkaturiko dituztenak.
- d) Legez eratuta dauden eta Agenda 21eko Foroan parte hartzen duten herriko elkarte bakoitzeko ordezkari bi.
- e) Ingurumena defendatzea eta babestea helburu duen eta Bergaran kokatuta dagoen erakunde baten ordezkari bat.
- f) Hirigintza eta Obretako batzorde informatzailean parte hartzen duten udal teknikari eta aholkulariak eta, kasuan-kasu, Alkate-Lehendakariak izendatzen dituenak. Hauek hitzarekin baina botorik gabe hartuko dute parte bilkuretan.
- g) Bergarako enpresetan ordezkari handiena duten hiru langile-sindikatuetakoko ordezkari bana.
- h) Bergarako bi nekazal sindikatuetakoko (EHNE eta ENBA) ordezkari bana.
- i) Bergarako Udalbatzan ordezkariarik ez izan arren, udal mailako antolakuntza eratua duten alderdi politikoetako ordezkari bana.
- j) Bergarako auzo-alkate guztien artean, Bergarako bi auzo-alkate izendatu, Auzoen Udal Batzordearen izenean.
- k) Bergarako enpresarien ordezkari bi, Adegik edo/eta Elkargik izendatuak.

2. Udal Plangintzako Aholku Batzordeko kideak, Alkate-Lehendakariak emandako Dekretuaren bidez izendatuko dira.

II. TITULUA.- ANTOLAMOLDEA

I. Kapituluak: batzordearen antolaketa.

3. artikulua.-

Hauek dira Udal Plangintzako Aholku Batzordearen jardute-organoak:

- a) Lehendakaritza eta Lehendakariordetza.
- b) Osoko Bilkura

II. Kapituluua: lehendakaritza eta lehendakariordetza.

4. artikulua.-

1. Udal Korporazioko Alkate-Lehendakaria izango da Udal Plangintzako Aholku Batzordeko Lehendakari.

Lehendakaria ez dagoenean, edo berak berariaz eskuordetuta, Lehendakariordeak beteko ditu Lehendakariaren eginkizunak.

2. Hauek dira Lehendakariaren eginkizunak:

- a) Batzordearen eskumeneko gaietan indarrean dagoen legeria beteko dela bermatzea.
- b) Batzordearen helburuak beteko direla ziurtatzea.
- c) Batzordearen osoko bilkurak hartzen dituen erabakiak beteko direla zaintzea.
- d) Aholku Batzordearen ordezkarietan aritzea erakundeetan, entitateetan eta batzordeetan; ordezkari hori eskuordetzan eman ahal izango dio Batzordearen Osoko Bilkurari.
- e) Ohiko eta aparteko bilkuren deialdiak erabakitzea eta eguneko aztergaiak zehaztea.
- f) Batzordearen Osoko Bilkurak onartzen dituen eskariak, errekerimenduak eta jarduketak dagokion udal-organoaren aurrean bideratzea.
- g) Aztertuko diren gaien arabera, egoki iritzitako pertsonak gonbidatzea Osoko Bilkurara eta lan-batzordeen bilkuretara. Gonbidatu horiek hitza izango dute baina ez botoa.
- h) Batzordeko Lehendakariari berez dagozkion eginkizunak.
- i) Esleituko zaizkion bestelako eginkizunak.

3. Batzordearen bileretan ondokoak izango dira lehendakariaren eskumeneko gaiak:

- a) Batzordeetako buru izan, eztabaidetan moderatzaile izatea, bileren martxa ona zaindu eta, dagokionean, bidezko arrazoiak egonez gero bilerak eten.
- b) Botazioan berdinketa emanez gero, kalitatezko botoa erabiliz erabakia hartu.

4. Lehendakariordetza Ingurumen Batzordeburuari dagokio.

Lehendakariordea ez dagoenean, edo berak berariaz eskuordetuta, Batzordeko kide den Korporazioko zinegotziren bat izango da lehendakariorde.

Lehendakariordearen eginbehar nagusia lehendakariaren ordezkari izango da, hura ez dagoenean, kargua hutsik dagoenean edo gaixo dagoenean.

III. Kapituluua.- Osoko Bilkura.

5. artikulua.

Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Osoko Bilkuran araudi honen 2. artikuluan aipatzen diren kideek hartuko dute parte. Horiez gain, batzordeko idazkariak hartuko du parte bilkuretan hitzarekin baina botorik gabe.

6. artikulua.

Udal Plangintzako Aholku Batzordeko kideek erakunde bakar baten izenean hartuko dute parte.

7. artikulua.

1. Aholku Batzordeko kideen agintaldia udal hauteskundeak egin artekoa izango da.

2. Hala ere, herritarren partaidetzarako udal mailako batzordeko kideek honako kasuetan galduko dute izaera hori:

- a) Borondatez uztea idatziz eskatzen dutenean.

BERGARAKO UDALA

Bergarako udalaren udal plangintzako aholku batzordea eratzeko eta jarduteko araudia

- b) Araudi honetan jasotako eginkizunak behin eta berriz betetzen ez dituztenean.
 - c) Ordezkatzen duten erakunde, talde edo elkarte desegiten denean.
 - d) Elkarteko estatutuak aldatu eta, ondorioz, ordezkari izendatzeko irizpidea aldatzen denean.
 - e) Tokiko Korporazioko ordezkariak duten kideen kasuan, ordezkaria aldatzen denean edo kargua uzten denean.
 - f) Ordezkatzen duen elkartearen kide izateari uzten dionean.
 - g) Heriotzagatik.
3. Osoko bilkurak berretsiko du batzordeko kide-izaera galtzea.

8. artikulua.

1. Osoko Bilkura da erabakiak hartzeko organo gorena.

2. Osoko Bilkurari dagokio:

- a) Batzordearen lan-programa egitea eta bere jardueren artean lehentasunak ezartzea.
- b) Bilkurara deitzeko arrazoi izan diren aztergai guztiei buruzko iritzia ematea.
- c) Udal Korporazioari bere jardueren berri ematea eta aholkatzea.
- d) Bidezkoa bada, aurreko Osoko Bilkuraren akta onartzea, eta hurrengo eguneko aztergaietan sar daitezkeen gaiak proposatzea.
- e) Batzordeko Lehendakariak eskatuta, hainbat organo berezik egingo dituzten txostenen berri izatea.
- f) Udal Plangintzako Aholku Batzordeari dagozkion eta beste organo bati eman ez zaizkion bestelako eginkizunak.

IV. Kapitulumua.- Idazkaritza.

9. artikulua.

Aholku Batzordeko idazkaria, Bergarako Udaleko Hirigintza eta Obra batzorde informatzaileko Idazkaria izango da.

10. artikulua.

Idazkariak Batzordeko Lehendakariaren zuzendaritzapean jardungo du, eta honako eginkizunak izango ditu:

- a) Osoko Bilkurarako deialdiak egitea eta horiekin batera eguneko aztergaiak eta aurreko bilkuraren akta bidaltzea.
- b) Batzordeko osoko bilkuretan parte-hartzea, hitzarekin baina botorik gabe, bilkuren akta jasotzea eta Lehendakariarekin batera akta horiek sinatzea.
- c) Artxiboko eta erregistroko lanak egitea eta idazkari izateagatik dagozkion bestelako eginkizunak.

III. TITULUA. UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEKO KIDEEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

I. Kapitulumua.- Batzordeko kideen eskubideak.

11. Artikulua.

Honako hauek dira Batzordeko kideen eskubideak:

- a) Batzordearen Osoko Bilkuretan ordezkari izatea.

BERGARAKO UDALA

Bergarako udalaren udal plangintzako aholku batzordea eratzeko eta jarduteko araudia

- b) Batzordearen Osoko Bilkurak hartutako erabakiak betetzeko helburuarekin burutuko diren jardueren berri izatea.
- c) Batzordeko aktak eta agiriak eskura izatea.
- d) Batzordean ekimenak eta interesak aurkeztea eta defendatzea.
- e) Batzordearen bilkuretan hitzarekin eta botoarekin parte hartzea.
- f) Proposamen bat egiteko informazioa behar izanez gero, Batzordearen bidez Korporazioaren zerbitzuetan dagoen informazio hori eskatzea.
- g) Araudi honen arabera edo indarrean dagoen legeria aplikagarriaren arabera izango dituen gainerako eskubideak.

II. Kapituluak.- Batzordekideen betebeharrak.

12. artikulua.

Honako hauek dira Batzordeko kideen betebeharrak:

- a) Osoko bilkuretan parte-hartzea eta hartutako erabakiak betetzeko helburuarekin Batzordeak bultzatutako jardueretan laguntzea.
- b) Batzordearen garapenaren eta sustapenaren alde egitea.
- c) Izan beharreko baimenik gabe Batzordearen izenean ez aritzea.
- d) Araudian jasotakoa errespetatzea eta betetzea.
- f) Erakunde, elkarte edo taldeen kasuan, beraien estatutuetan egiten aldaketen berri ematea Udalarri, aldaketa horiek Udal Osoko Bilkurak batzordekide izendatzeko erabili dituen irizpideetan eragina izan dezakete eta.
- g) Ordezkaritza duen kidean edo haren elkartearen helbide sozialean eman daitezkeen aldaketen berri ematea.
- h) Araudi honen arabera edo indarrean dagoen legeria aplikagarriaren arabera esleitu ahal zaizkien beste betebeharrak batzuk.

IV. TITULUA.- JARDUTEKO ARAUBIDEA.

I. Kapituluak.- Osoko Bilkura.

13. artikulua.

1. Aholku Batzordearen Osoko Bilkura, bere eginkizunak -1. artikuluan adierazitakoak- betetzeko behar den guztietan bilduko da ohiko batzarrean. Horrezaz gain, Lehendakariak proposatuta edo batzordekideen herenak eskatuta, beharrezko denean bilduko da aparteko batzarrean.
2. Udal plangintzako Aholku Batzordearen deialdia ohiko bilkurak baino hiru egun lehenago bidaliko zaie batzordekideei; aparteko bilkurak direnean, berriz, bi egun lehenago bidaliko da.

14. artikulua.

1. Batzordearen Osoko Bilkura balio osoz eratuta egongo da lehenengo deialdian batzordekideen erdia gehi bat daudenean.
2. Hala gertatzen ez bada, Batzordea bigarren deialdian eratuko da, ordu erdi beranduago, batzordekideen kopurua edozein izanda ere. Hala ere, Lehendakariak eta Idazkariak bertan egon beharko dute nahitaez.

II. Kapituluak.- Botazioak.

15. artikulua.

1. Botazioak arruntak izango dira. Hala ere, gai zehatzak erabakitzeko Batzordearen Osoko Bilkurak izenezko botazioa edo botazio sekretua egitea erabaki dezake.
2. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izango da, baina abstentzioaren aukera ere izango da.
3. Botoa garbi eta ozen emango da eta ezingo da eginkizun hori beste batzordekide baten esku utzi.
4. Erabakiak gehiengo soilarekin hartuko dira.

16. artikulua.

Botazioan berdinketa gertatuz gero, beste bat egingo da, eta bigarren horretan berdinketa hautsi ez balitz, Batzordeko Lehendakariak hartu beharko du erabakia, bere kalitatezko botoaz baliatuz.

17. artikulua.

1. Botazioari ekin aurretik, Batzordeko lehendakariak argi eta zehatz adieraziko du botazioaren nondik norakoa eta botoa emateko modua.
2. Botazioa amaitu ondoren, Idazkariak emandako botoak zenbatu eta botazioaren emaitza adieraziko du ozenki. Ondoren, Lehendakariak emaitza horren arabera hartuko den erabakia iragarriko du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du Udal Osoko Bilkurak aldatzea edo indargabetzea erabaki arte, edo Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean Aholku Batzordeari eragingo dion aldaketaren bat egin arte.